



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

2021-02-23an    EGINDAKO    OHIKO  
UDALBATZA

SESIÓN ORDINARIA    DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 23-02-2021 .

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Josu Ezkurdia Santamaría

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
María Purificación Regidor Varela  
Antonio Regaño Sájeras  
Ana Belén de Castro Ramos  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaitoa Aguiriano  
Ander Errarte del Pozo  
Leire San Vicente Carrillo

#### Idazkaria

#### **EDURNE ITURBE LASKURAIN**

Eskoriatzan, 2021eko otsailaren 23an, arratsaldeko 18:00etan, Josu Ezkurdia Santamaría jarduneko Alkate-Udalburua buru dela, eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Udalbatza, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez zirela etorriko adierazi zuten Jose Ramon Zubizarreta Alegriak eta Eluska Irazu Hernandezek.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 23 de febrero de 2021, telemáticamente quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde - Presidente en Funciones Josu Ezkurdia Santamaría con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusan su asistencia José Ramón Zubizarreta Alegría y Eluska Irazu Henández.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABLJWL.Xwx>

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2021eko urtarrilaren 26an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

### **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2021eko otsailaren 17ra arte hartutako erabakien berri eman da.

Ondoren, berariaz jakinarazten dira 2021eko 1. eta 2. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko hartutako erabakiak.

Jakinarazten da otsailaren 27an Saharako Estatuak 45 urteko erresistentzia eta independentziaren aldeko borroka ospatuko duela eta, bozeramaileen batzordean aho batez adostu ondoren, bandera sahararra udaletxeko balkoian jarriko dela.

AJAren 91.4 artikulua babesean, jarduneko Udalburuak jakinarazi du osoko bilkuraren botoetara jarriko duela urgentziatzko tramitearen bidez gai berri bat sartzeko gai zerrendan galderen eta eskaeren puntuaren aurretik. Sartu beharreko gaia Leintz Udal Euskaltegirako alkatearen ordezkari bat izendatzea da.

### **3.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN IGOERA.**

2021 urterako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko azaroaren 30eko 11/2020 Legearen 18. artikuluan jasotakoaren babesean, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailearen diktamenarekin bat etorritik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 0,9ko igoera 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko.

**Bigarrena.-** Igoera horiek martxoko nominan ordaintzea.

#### **4.- ESKORIATZAKO UDALAK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ERREGIMENA ARAUTZEKO ORDENANTZA OROKORRA HASIERA BATEAN ONARTZEA.**

Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorraren proposamena ikusita, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako EH BILDUKo bi zinegotziak (Dorleta Sologaietza eta Ander Errarte) abstentuta eta gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen ordenantza orokorra hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, horretarako iragarkiak jarri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki oholean eta webgunean, interesdunek erreklamazioak eta eragozpenak jarri edo oharrak egin ditzaten. Erreklamaziorik, eragozpenik edo oharririk aurkezten ez badira, hasierako onarpena behin betikotzat joko da automatikoki.

**Hirugarrena.-** Alkate-Udalburuari ahalmena ematea hasierako erabakia behin betiko bihurtzeko erabaki bidez, betiere, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada.

BOTO AZALPENA: Dorleta Sologaietza adierazi du bere taldeak ez duela oso garbi ordenantzaren edukia.

#### **5.- ZIGOR PROPOSAMENA ANIMALIAK BABESTEKO URRIAREN 29ko 6/1993 LEGEAREN 27.2 h) ARTIKULUA HAUSTEAGATIK.**

2020ko abenduaren 28ko Alkate erabakiz zigor espedienteak ireki zitzaion Joseba Leceta Olacireguri ondorengo egitateengatik:

*Joseba Leceta Olacireguri txakurra aske eta zaintzarik gabe ibili da baserri ingurunean eta pertsona bati haginka egin dio.*

Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuak honako hau dio 4. eta 5. artikuluetan:

“4.2.- Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gune komunetan ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta (gehenez bi metrokoa).”

“4.4.- Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, txakurraren edukitzailea edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoaren erantzulea; baita txakurrak alde egin badio edo galdu egin bazaio ere.”

“5.8.- Gune pribatu batean egon behar dutenean, itxitura perimetral osoa duen eta altuera eta material egokiak dituen esparru bat izango dute; gune horretan libreki

ibiltzea eta erabilera komunekoko gune publiko eta pribatuetara inolako kontrolik gabe eta eutsi gabe ateratzea ekidingo da horrekin.”

Zigor espedientea izapidetzeko erabakia eta erabaki proposamena jakinarazita, interesdunak ez du alegaziorik aurkeztu.

Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 27.2-h artikulua araberan, Joseba Leceta Olaciregui jaunak arau-hauste administratibo larria egin du, kalterik egin dezakeen animalia zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik izan ez duelako.

Aipatutako Legearen araberan, arau-hauste larri moduan 300,52 eurotik 2404,05 euro arteko isuna ezartzea proposatzen da.

Zigor espedientea ireki zaion lehenengo aldia denez, espedienteko instruktoreak zigor minimoa jartzea proposatzen du, hau da, 300,52 €.

Deskribatutako gertaerak ez dira delitutzat edo faltatzat jotzen, eta, beraz, ez da bidezkoa gertaeren berri ematea zigor jurisdikzioari.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 43. artikulua eta animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 31. eta 32. artikuluen araberan, eta espedientegilearen proposamenarekin bat eginez, aho batez, ondorengo ERABAKIA HARTU DU Udalbatzarrak:

**Lehenengoa.-** Joseba Leceta Olaciregi jaunari 300,52 euroko zigorra jartzea Animaliak Babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legeko 27-2.h artikuluan larritzat jotako administrazio arau-haustea egiteagatik.

**Bigarrena.-** Ezarritako zigorra ordaintzeko gehienez ere hilabeteko epea izango da erabaki hau jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta berorren aurka jar daitezkeen errekursoak jakinaraztea zigortuari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

## **6.- CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK S.L.-REN ESKAERA SAN JUAN KALEKO AZKEN ZATIAREN URBANIZAZIO OBRENGATIK JARRITAKO ABALA KITATZEKO.**

Udalbatzarrak, 2007ko maiatzaren 24an hartutako erabakiz, Eskoriatzako San Juan kaleko azken zatiko urbanizazio proiektuan aurreikusitako obrak egiteko kontratua esleitu zion Construcciones Sukia Eraikuntzak enpresari 245.562,72 eurotan.

Kontratua esleitzeko ezarritako baldintzak betez, Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. enpresak Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastian-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak emandako abala jarri zuen 2007ko uztailaren 9an. Abal hori Eskoriatzako San Juan kaleko azken zatiko urbanizazio proiektuan (I. kapitulua) aurreikusitako

obrak egiteko esleitutako kontratutik eratorritako betebeharrak beteko ziren berme bezala jarri zen.

Abal hori kitatzeko baimena eskatu du Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. enpresak.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastian-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. enpresaren alde emandako 9.822,50 euroko abala (Zkia.: 2000.00495-101) kitatzeko baimena ematea. Abal hori Eskoriatzako San Juan kaleko azken zatiko urbanizazio proiektuan (I. kapitulua) aurreikusitako obrak egiteko esleitutako kontratutik eratorritako betebeharrak beteko ziren berme bezala jarri zen.

**Bigarrena.-** Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

## **7.- E-GOITEK ENPRESAK JARRITAKO BERMEA ITZULTZEKO ESKAERA: 2016an ESLEITUTAKO KONTRATUA KIROL ZERBITZUAK EMATEKO.**

E-GOITEK S.L. enpresak fidantza eskudirutan jarri zuen 2016ko urriaren 14an. Fidantza hori Udalbatzarrak, 2016ko urriaren 18an hartutako erabakiz, hainbat kirol zerbitzu emateko esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme gisa jarri zen.

Kontratuaren indarraldia amaituta, jarritako fidantza itzultzeko eskatu du E-GOITEK enpresak.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** E-GOITEK S.L. enpresari berme bezala jarritako 21.268,74 euro ITZULTZEA. Diru hori udal kirol instalazioetan hainbat kirol zerbitzu emateko Udalbatzarrak 2016ko urriaren 18an esleitutako kontratutik sortutako betebeharrak beteko zirela berme bezala jarri zen.

## **8.- IDAZKARITZAK-KONTUHARTZAILETZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204

Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

#### OBLIGAZIOAK AITORTZEAREN ARLOKO ERAGOZPENAK

1.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXAKO 2/2020 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

2.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXAKO 3/2020 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

3.- 2020ko UZTAILAREN 24an EGINDAKO POTX MAGOA IKUSKIZUNEAN COVID-19aren AURKAKO NEURRIAK BETETZEKO ZERBITZUAREN GASTUAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTEN BI (ez dago fakturarik).

4.- BABES MUGIKOR BAT EROSTEKO GASTUAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (ez dago fakturarik).

5.- UR ZERBITZUAREN KUDEAKETAREN ALDAKETA DELA-ETA BUZONEO ZERBITZUAREN GASTUAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (ez dago fakturarik).

6.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXAKO 5/2020 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)

#### KONTRATAZIO ARLOKO ERAGOZPENAK

1.- Atxorrotzeko bidea konpontzeko zagorra hornitzeagatik CANTERA CALERA DE COBATE S.L. enpresak aurkeztutako fakturari ERAGOZPEN TXOSTENA (ez da jarraitu prozedura).

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 7 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

#### **9.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan)**

Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23

**berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2020ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 7 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**Ana de Castro zinegotzia bilkurara batu da 18:10ean.**

**10.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2018ko abenduaren 4an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen 102.192,29 eurotan urteko gehi BEZari dagozkion 21.460,38 eurotan.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko apirilaren 1etik kontatzen hasita, eta beraz, 2020ko martxoaren 31n amaitu zen bere indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboan agirian ezarritakoa jarraituko zen.

Udalbatzarrak, 2020ko urtarrilaren 27an, URTEBETEZ luzatu zuen ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTZEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitutako kontratua, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

Baldintza administratibo partikularren agiriaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu

baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua  
2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Koldo Nieto Martin jaunak, FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresaren izenean eta ordezkartzen,  
idatzia aurkeztu du 2021eko urtarrilaren 27an ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK,  
LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO  
ZERBITZUAREN kontratua 2021eko apirilaren 1etik aurrera URTEBETEZ luzatu dadin  
eskatzeko.

Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako.

Hirigintza, Mugikortasuna eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren  
arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau  
ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA  
PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko  
FERROVIAL SERVICIOS S.A. enpresari esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (2.  
luzapena), baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

## **11.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2018ko uztailaren 24an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO KALEAK  
GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua CESP, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE  
SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren esango  
diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta  
kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe.

Prezioak:

- Derrigorrezko zerbitzuak: 153.459,25 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 15.345,93 euro.
- Aukerako zerbitzuak: 79,99 euro gehi % 10eko BEZari dagozkion 8 euro.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2019ko martxoaren 1etik kontatzen hasita, eta  
beraz, 2020ko otsailaren 28an amaitu zen. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza  
ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko zen.

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**



Udalbatzarrak, 2020ko urtarrilaren 27an, URTEBETEZ luzatu zuen CESPА, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-ri ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako kontratua, baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena du, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Koldo Nieto Martin jaunak, CESPА, S.A. enpresaren izenean eta ordezkartzan, idazkia aurkeztu du 2021eko urtarrilaren 27an ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN kontratua 2021eko martxoaren 1etik aurrera URTEBETEZ luza dadin eskatzeko .

Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako.

Hirigintza, Mugikortasuna eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** CESPА, COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-ri ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO esleitutako kontratua urtebetez luzatzea (2. luzapena), baldintza agiriko hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

**Nestor Arana zinegotzia bilkurara batu da 18:15ean.**

## **12.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LEHENENGO LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ESKORIATZAKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren adieraziko diren prezioetan eta

baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunen menpe.

Prezioak:

- A) Kontratuaren urteko prezioa, BEZ barne, baldintza agirian zehaztutako derrigorrezko zerbitzuei dagokienez, 138.052,60 eurokoa (BEZ gabe) gehi BEZaren % 21ari dagozkion 28.991,05 eurokoa da.

Ordainketa administrazio baldintza partikularren agirian jasotzen den bezala egingo da.

Prezio hori honela banatuta dago eraikinka:

- BEZ gabe honela banakatzen da eraikinka urteko:

Luis Ezeiza Herri Eskola	33.280,80
Haurreskola (biblioteca barne)	20.364,40
Kulunka Haurtzaindegia (eraikin oktogonal)	11.250,40
Ibarraundi Museoa	14.660,80
Zaldibar	3.018,40
Ludoteka	3.694,60
EPA	1.744,40
Elkarteen txokoa	1.293,60
Geltoki zaharra	1.156,40
Artxiboaren lokala	235,20
Kiroldegia	38.200,40
Kiroldegiko garajeak	627,20
Pilotalekua	7.487,20
Komun publikoak	1.038,70
Gaztelekua	138.052,60

B) Aukerako zerbitzuei dagokienez, kontratuaren prezioa honela ezarrita gelditzen da:

ZENTROA	URTEKO KOSTUA GUZTIRA
Kultur Etxea	2.116,80
Musika Eskola	1.411,20
Udaletxea	3.822,00

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**

C) Garbiketa bereziak egiteko aukerako zerbitzuei dagokienez, kontratuaren prezioa honela ezarrita gelditzen da:

<b>ZENTROA</b>	<b>ZERBITZUAREN KOSTUA</b>
Ibarraundi	58,80
Zaldibar	39,20
Pilotalekua	235,20
Udal etxebizitzak (etxebizitzako)	235,20
Kultur etxea	39,20

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA da 2020ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beraz, 2021eko martxoaren 24ra arte izango du indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko da.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena du 2020ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikulua 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Jose Antonio Ponferrada jaunak, HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, idazkia aurkeztu du 2021eko otsailaren 4an Eskoriatzako Udaleko Garbiketa Zerbitzu Orokorren kontratua 2021eko martxoaren 24tik aurrera URTEBETEZ luza dadin eskatzeko.

Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako.

Hirigintza, Mugikortasuna eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**

**Lehenengoa.-** HEMEN GARBIKETAK enpresari HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEKO esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea baldintza agiriaren hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

### **13.- ESKORIATZAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA: MARTXOAK 8**

Josu Ezkurdiak, EAJ/PNV Udal Taldearen bozeramailea den aldetik, jakinarazi du bere taldea ez dagoela testuaren edukiaren aurka, baina aurkako botoa emango duela, horrelako mozioetan ahalik eta adostasun handiena lortu behar dela uste dutelako, eta horregatik, EUDELe proposatutako mozioak ekartzen dituztela, talde gehieneren onespenerarekin datozelako eta udal gehienetan onartzen direnak direlako.

Gainerako bozeramaileei hitza emanda, honako hauek hitz egin dute:

Dorleta Sologaitoak esan du beraiantzat Eudelen testua ondo dagoela, baina zehaztasun gehiago behar duela, eta aurkezten duten mozioaren testua irakurri nahi duela, Eskoriatzako feministen taldearekin elkarlanean egin eta idatzi delako.

Ondoren transkribatzen da testua erdarazko bertsioan:

*Duela ia urtebete gure jendartea eta bizitzeko moduak astintzen zituen COVID19ak eragindako pandemiak, inoiz ez bezala. Krisi multidimentsional eta sistemiko bat bizi dugu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozen beste krisi batzuekin gurutzatzen eta lotzen den krisia, hala nola krisi ekologikoa eta zaintzen krisiekin.*

*Pandemiak agerian utzi du gordinki feminismitik aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da, eko eta interdependentea. Ezerk ez du bizitzaren zaintza baino garrantzitsuagoa izan behar eta bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustu erradikala egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.*

*Eraldaketa erradikalak behar ditugu, feminismoak ozen dio aspaldi. Eta orain, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideetan atzerapena eragin ez dezan, are premiazkoagoa da genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen duten neurri feministak hartzea.*

*Irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara itzultzea, emakume gehienek lehenago ere bizi baitzuten diskriminazioa eta eskubideen urraketa: orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiontzako bizitza duina bermatzea eta zaintzea lehenasuntzat joko duen antolaketa sozial, ekologiko eta ekonomikoko sistema bateranzko oinarri sendoak ezartzeko.*

*Publikotik krisi honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko*

*aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena. Azken hilabeteetan Euskal Herriko hainbat udalerritan bultzatu diren zaintzako ekimen publiko-komunitarioak eredu ezin hobea dira.*

*Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanaz eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.*

*Ez dago aitzakiarik: ez argazkirik ez adierazpen hutsik martxoaren 8aren atarian gaudelako. Egun honek udal honek politika publiko-komunitario feministekin duen konpromisoa berresteko balio behar du, krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzuteko eta erdigunean bizitza zainduko duen gizarte-eredu baterantz joateko.*

*Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Udalak honako hau erabaki du:*

- 1. COVID19aren ondorioak eta kolektibo eta pertsona ahulenen egoera eta beharrak aztertzea, besteak beste: bakarrik bizi diren adinekoak (nagusiki isolatuak bizi direnak eta emakumeak), guraso bakarreko amak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, kanean dauden pertsonak, familia-eremuko zaintzaileak (ordainduak eta ez ordainduak), emakume langabeak, etab. Ikuspegi feminista eta tokiko eragile sozialen parte-hartzea bermatu beharko da, bereziki emakume eta feministena.*
- 2. Errealitate horren eta identifikatutako beharren aurrean, premiazko ekintza eta neurri sorta bat identifikatzea eta plangintza batean jasotzea, baliabideak, kronograma eta arduradunak zehaztuz eta herritarren parte-hartzea bermatuz, bereziki emakumeen kolektiboena, bai diseinuan, bai jarraipenean eta ebaluazioan.*
- 3. Emakume, nerabe eta neskatuen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, kolektibo feministen eskutik.*
- 4. Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduntze-premisetatik.*
- 5. Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.*
- 6. Premisa feministetatik abiatuta, zaintzei buruzko herri eztabaida-guneak irekitzea, askotariko kolektibo sozial, administrazioa eta gure udalerrian dauden beste sektore batzuk inplikatzuz, eta zaintzen erantzunkidetasunerako tokiko itun bat bultzatzea.*
- 7. Harrera publiko-komunitarioko programak sustatzea, aholkularitza zerbitzua barne, iritsi berriak diren pertsonentzat, tokiko eragile sozialen parte-hartzearekin eta kolektibo ahulenei arreta berezia jarritz, genero-ikuspegia aplikatuz.*
- 8. Zeharka, identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduerak guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.*

**Eskoriatzako  
Ehildu Udal  
taldea.**

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**

Leire San Vicentek esan du interesez irakurri dituela bi mozioak, puntu komunak dituztela, salbuespenak salbuespen, eta egiten duen irakurketa dela EH BILDUren mozioak oinarri sendoagoa duela berdintasun-politika bat garatzeko, mugimendu feminista eta emakumea kontuan hartzen dituela eta gai zehatzagoak planteatzen dituela lortu nahi den aldaketa lortu ahal izateko.

Hitz egiteko txandak amaituta, mozioa bototara jarri da. Aurkako 5 botorekin (EAJ/PNVren 5 zinegotziena) eta beste 4 zinegotziek alde bozkatuta (EH BILDUKo 3k eta EEEko 1), ez da onartu mozioa.

#### **14.- EUDELEN ESKARIZ EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN PROPOSAMENA MARTXOAREN 8a DELA-ETA: ZAINZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean.**

Inork ez du ezer esateko, eta Josu Ezkurdiak bototara jarri du EUDELek eskatuta aurkezten den mozioa. Hona hemen hitzez hitzeko transkripzioa:

##### ***ZAINZA BERDINTASUNEAN. Emakumeen egitekoa Pandemian eta zaintzaren Krisi Globalean***

*Dimentsio askoko krisi sistemikoan gaude, zeina gurutzatu eta erlazionatu egiten baita aurretik zeuden beste krisi batzuekin; esaterako, ekologikoa eta zaintza-arlokoa. Pandemiak agerian utzi ditu mugimendu feminista eta emakumeen kolektiboak egiten ari ziren zenbait aldarrikapen: giza bizitza zaugarria da, eta giza ingurunearen, ingurumenaren eta ingurune komunitarioaren zeharo mendekoa. Ezerk ez du garrantzi handiagoa izan behar bizitza zainzteak baino, pandemia dela-eta muturreraino prekario bihurtu eta ahuldu den bizitza.*

*Gaur, martxoak 8, Emakumeen nazioarteko egunean, pandemiak eta haren kudeaketak baldintzatutako urte honetan, aintzat hartu beharra dago emakumeek pandemia eta beraren ondorioak borrokatzeko mundu osoan egindako ekarpena. Zaintzaren ardura emakumeei egokitu zaie, bai zerbitzu publikoetan (osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, merkataritza eta elikadura...) bai etxean barruan, eta batez ere haiek eraman dute krisi sanitario eta sozial honetan funtsezkoak izan diren zerbitzu askoren zama. Emakumeen artean ere banaketa desorekatua da, klase sozialaren, arrazializazioaren eta migrazio-estatusaren arabera. Gainera, kasurik gehienetan egoera prekarioan egindako lanak dira.*

*Berdintasunik gabeko banaketa horrek, gainkargaz gain, eta hark emakumeen osasunari eta bizi-kalitateari dakartzkien ondorioez gain, zaintza-sistemaren prekaritate ere azaleratu du, eta lehendik ere bazeuden desberdintasunak areagotu ditu. Gure gizarte-ereduak familiaren, eta, neurritz kanpoko proportzioan, emakumeen esku uzten ditu zaintza gehienak, bai ordainpekoak bai ordaingabeak; oso gutxi ematen dira eremu publikoan. Bestalde, egoera eta estatus okerreneko emakumeek (guraso bakarreko familien buruak, behartsuenak, kolektibo zaugarrietakoak, indarkeria matxistaren biktimak...) neurri handiagoan jasaten dituzte zaintza-zamaren ondorio negatiboak.*

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**

Ondorioz, gizarteak bere aitortpena adierazteko moduak konpromiso irmoa izan behar du, berdintasunik gabeko banaketa bidegabe horri euskarria ematen dioten genero-arrakalak borrokatzeko konpromisoa. Desberdintasun horiek agerikoak dira emakumeek funtsezko zerbitzuetan egiten duten lanaren baldintzen prekaritateari begiratuz gero. Bada garaia zaintza-lan guztiei dagokien balioa emateko, eta aurrera egiteko erantzunkidetasun handiagoko eredu baterantz, pertsona guztientzat ekitate eta ongizate handiagoa sortzeko.

Udalak gaude lehen lerroan, pandemiari eta hark pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten, eta liderrak izan behar dugu zaintzari eta haren hornikuntzari buruzko politika publikoak bultzatzeko orduan, erantzunkidetasun publikotik abiatuta, eta arreta emanez gizon eta emakumeen baldintza eta inpaktu desberdinei.

Erakundeok koordinatuta egoten jarraitu behar dugu, eta bideak zabaldu behar ditugu herritarrek, eta bereziki mota askotako emakumeen kolektiboek eta mugimendu feministak, benetan eta modu eraginkorrean parte har dezaten erabaki publikoetan.

Horregatik guztiagatik, Udal honek, bere eskumenen esparruaren barruan, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Gizartean zaintza antolatzeko **ereduari buruzko eztabaida** bultzatzea eta eztabaida horretan buru izatea, bizitza erdigunean jartzean oinarritzen den ikuspuntu feminista batetik abiatuta, zaintzaren erantzunkidetasun sozial eta komunitarioranzko bidean.
- **Analisia** egitea, genero-ikuspuntutik, kolektibo zaurgarrienen egoerari eta beharrezan buruz, baita COVID-19aren ondorioei buruz ere, eta horiei aurre egiteko premiazko **neurriak martxan jartzea**.
- COVIDaren krisiaren eragina arintzeko onartzen diren neurri guztietan genero-ikuspuntua gehitzen dela bermatzea, **laguntzez eta babes-programez** den bezainbatean.
- Konponbide bideragarriak aztertzea eta ezartzea **adingabekoen eta mendekotasuna dutenen zaintzari laguntzeko** tokiko zerbitzuentzat, zaintza baldintza duin eta bidezkoetan egin dadin saiatuz edo/eta erraztuz, bai ematen duenarentzat bai jasotzen duenarentzat ere.
- **Udalen Berdintasun-plangintzetan**, espresuki azpimarratzea emakumeen ahalduntzea, zaintzaren balioa, eta hari dagokionez gizonen duten **erantzunkidetasuna**.
- Berdintasuneko tokiko politikak garatzeko eta generoa tokiko politika guztietan zehar-lerroa izateko erabiltzen diren **giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak** sendotzea eta babestea.
- Tokiko **zaintza-sare komunitarioei** babesa ematea.

Aldeko 5 botorekin (EAJ/PNV), eta beste lau zinegotziak abstentituta (EEEko 1 eta EH BILDUren 3), mozioa onartu da.

## **15.- GAI ZERRENDATIK KANPOKO GAIAREN URGENTZIA ETA GAI GAI ZERRENDAN SARTZEA: ALKATEAREN ORDEZKOA IZENDATZEA LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN.**

Alkate jaunaren gaixotasunagatik baja eta Leintz Udal Euskaltegian bere funtzioak beteko dituen zinegotzirik izendatu ez denez, beharrezkoa da izendapen hori erakundearen hurrengo batzarra baino lehen egitea, laster izango baita.

**Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno Ordinario  
2021/02/23**

Urgentzia aho batez onartu ondoren, gaia aztertzea erabaki da, eta Udalburuak egindako proposamena bozkatu da. Horrenbestez, aho batez erabaki da MAITE URIBE BERISTAIN zinegotzia izendatzea alkatearen ordezeko Leintz Udal Euskategia Mankomunitatean.

#### **16.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:30ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



## **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 26 de enero de 2021.

## **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da traslado de la Resoluciones dictadas hasta el día 17 de febrero de 2021.

De forma expresa se da cuenta de los acuerdos relativos a la aprobación de los expedientes de modificación de créditos N° 1 y N° 2 de 2021.

Se informa que el próximo día 27 de febrero el Estado Saharaui celebra 45 años de resistencia y lucha por la independencia y que en apoyo, previo acuerdo unánime en la Junta de Portavoces, se colocará la bandera saharauí en el balcón del Ayuntamiento.

Al amparo de del art. 91.4 del ROF, el Presidente en funciones informa que someterá a votación del pleno la inclusión por el trámite de urgencia de un nuevo asunto a tratar antes del punto de ruegos y preguntas. Se trata de la designación de un sustituto/a del Alcalde en Leintz Udal Euskaltea.

## **3.-INCREMENTO DE LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO**

Al amparo de lo contemplado en el art. 18 de la Ley 11/2020, de 30 de noviembre ,de Presupuestos Generales del Estado para el año 2021 , y de conformidad con el dictamen de la Comisión Informativa de Personal y Hacienda, por unanimidad , el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Aprobar, con efectos 1 de enero de 2021, un incremento del 0,9 %, respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2020, de las retribuciones de todo el personal al servicio de este Ayuntamiento

**Segundo:** Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de marzo.

## **4.- APROBACION INICIAL DE LA ORDENANZA GENERAL REGULADORA DEL REGIMEN DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

Vista la propuesta de Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Eskoriatza, de conformidad con la propuesta elevada

desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y con la abstención de los dos concejales de EH BILDU presentes (Dorleta Sologastoa y Ander Errarte) y voto a favor del resto de los corporativos, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Eskoriatza.

**SEGUNDO.-** Someter el presente acuerdo a información pública por plazo de 30 días hábiles, mediante anuncios en el Boletín Oficial de la Provincia, en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento y en su sitio web para que los interesados puedan formular reclamaciones, reparos u observaciones. En caso de no presentarse reclamaciones, reparos, ni observaciones, el acuerdo inicial se entenderá elevado automáticamente a definitivo.

